# BESTELAKO XEDAPENAK

## EKONOMIAREN GARAPEN ETA LEHIAKORTASUN SAILA

## 1108

*EBAZPENA, 2013ko urtarrilaren 2koa, Energia eta Meategien zuzendariarena, Ondarroako udalerrian «STR Ondarroa» izeneko 30/13,2 kV-ko transformazio-azpiestazioa berritzeko baimena eman, proiektua onartu, eta haren onura publikoa adieraztekoa.*

Erref.: Azpi. 72. zk.
AT-D-2012-27 ASS/SM.

AURREKARIAK

1.– 2012ko apirilaren 20an, Iberdrola Distribución Eléctrica, SAU enpresak, ondoko linea elektrikoari doakionez, exekuzio-proiektua onartzea, onura publikoko deklaratzea eta administrazio-baimena eskatu zituen: Ondarroa udalerrian, «STR Ondarroa» izeneko 30/13,2 kV-ko transformazio-azpiestazioa berritzeko proiektua. Hartarako, Borja de Benito Navaridas ingeniari industrialak sinatutako eta Bizkaiko Industria Ingeniarien Elkargo Ofizialak 2012-03-23an 00753/2012 zenbakiarekin bisaturiko proiektu teknikoa aurkeztu zituen eskabidearekin batera.

2.– Abenduaren 1eko 1955/2000 Errege Dekretuaren 144. artikuluan (2000-12-27ko BOE) eta abenduaren 3ko 282/2002 Dekretuaren 10. artikuluan (2002-12-23ko EHAA) ezarritakoa betez, iragarkia argitaratu egin zen, BAOn, 2012-08-01ean, EHAAn, 2012-08-13an, eta El Correo egunkarian, 2012-07-19an.

3.– 2012ko maiatzaren 21ean ofizio bat igorri zen Ondarroako Udalera, adierazitako iragarkia bertako ediktu-taulan jartzeko; horretaz gain, 2012-06-29an Ondarroako Udalari eskatu zitzaion txosten baten bitartez adierazteko, egokitzat jotzen zuten edo ez instalazioa onura publikoko deklaratzea, eta hala bazegokion, egokitzat jotzen zituzten baldintza teknikoak ezartzeko.

4.– Horretarako ezarritako jendaurreko informazio-epean, Bizkaiko Lurralde Ordezkaritzan ez da alegazio partikularrik jaso, ezta erakundeen txostenik ere, proiektu horren inguruan.

OINARRI JURIDIKOAK

A) Espedientea egiterakoan, honako hauetan araututako izapideak bete dira: Sektore Elektrikoaren azaroaren 27ko 54/1997 Legea, abenduaren 1eko 1955/2000 Errege Dekretua, energia elektrikoko instalazioen garraioko, banaketako, merkaturatzeko eta hornidurako jarduerak eta baimentze-prozedurak arautzen dituena, Eusko Jaurlaritzaren abenduaren 3ko 282/2002 Dekretua, eta horiekin bat datozen gainerako legeak.

B) Sektore Elektrikoari buruzko 54/1997 Legearen 52. artikuluak onura publikokotzat deklaratzen ditu argindarra banatzeko instalazioak, horiek instalatzeko beharrezko diren ondasun eta eskubideen nahitaezko desjabetzea egiteko eta igarobide zorra ezarri eta erabiltzeko, eta, deklarazio horrek berekin dakar ondasun eta eskubide horiek hartu beharra eta urgentziaz okupatu beharra, Nahitaezko Desjabetzeari buruzko Legearen 52. artikuluaren ondorioetarako.

Energia eta Meategien zuzendariak, Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen irailaren 22ko 514/2009 Dekretuan aitortzen zaizkion eskumenak baliatuz (2009ko irailaren 24ko EHAA), honako hau

EBAZTEN DU:

Baimena Ematea Iberdrola Distribución Eléctrica, SAUri Ondarroako udalerrian «STR Ondarroa» izeneko 30/13,2 kV-ko transformazio-azpiestazioa berritzeko, eta exekuzio-proiektua onartzea. Instalazioaren ezaugarriak honakoak dira:

Dagoen transformazio-azpiestazioa aldatzea, eta kanpoko instalazio guztiak aldatzea, energia elektrikoaren banaketarako erabiltzen direnak. Honela eratuta geratuko da:

Bi linea-posizio, 30 kV-ko tentsiorako, SF6ko isolamendu-gelaxka bidez, 36 kV-rako, 630 A-ko intentsitate nominalarekin eta 31,5 kA-ko eten-ahalmenarekin.

Transformadorearen posizio bat 30 kV-ko tentsiorako, SF6ko isolamendu-gelaxken bidez, 36 kV-rako, 1.250 A-ko intentsitate nominalarekin eta 31,5 kA-ko eten-ahalmenarekin.

Kanpoko potentzia-transformadore bat, 10 MVA-koa, lehendik dagoena, 30/13,8 kV-ko erlazioduna.

Hiru linea-posizio, 13,2-ko tentsiorako, SF6ko isolamendu-gelaxken bidez, 24 kV-rako, 630 A-ko intentsitate nominalarekin eta 25 kA-ko eten-ahalmenarekin.

Potentzia-transforamdorearen posizio bat, 13,2-ko tentsiorako, SF6ko isolamendu-gelaxken bidez, 24 kV-rako, 630 A-ko intentsitate nominalarekin.

Zerbitzu osagarrietarako transformadorearen posizio bat, 13,2-ko tentsiorako, SF6ko isolamendu-gelaxken bidez, 24 kV-rako, 200 A-ko intentsitate nominalarekin eta 25 kA-ko eten-ahalmenarekin.

Tentsioa eta intentsitatea neurtzeko posizio bat.

Zerbitzu osagarrien transformadore bat, 50 kVA-koa, erlazioa 13,2/0,420 kV izanik.

17 ohm-eko lurrerako erresistentzia bat.

Babeserako eta kontrolerako sistema integratu bat.

Baimentzen den instalazioa onura publikokoa dela deklaratzea. Azaroaren 27ko 54/1997 Legearen 54. artikuluan xedatutakoari jarraikiz, deklarazio horrek eraginpeko ondasunak okupatu edo eskubideak eskuratu beharra dakar, eta horrenbestez, urgentziazko okupazioa eragiten du, 1954ko abenduaren 16ko Nahitaezko Desjabetzeari buruzko Legearen 52. artikuluak premiazko okupazioko deklaraziorako xedatzen dituen ondorioak zehaztuz, lege horren 53. artikuluaren erregistro-ondorioekin.

Ebazpen hau bi dekretu hauen arabera eman da: abenduaren 1eko 1955/2000 Errege Dekretua eta abenduaren 3ko 282/2002 Dekretua; eta baldintza orokor hauetan:

Obrak onartu den proiektuaren eta aurkeztu diren agirien arabera egin behar dira (dagoeneko aipatu ditugu).

Martxan jartzeko epea bi urtekoa izango da, ebazpen honen datatik hara.

Obrak amaitzen direnean, instalazioen titularrak obrak amaitu direla jakinarazi behar du Sailaren Bizkaiko Lurralde Ordezkaritzan, instalazioa behin betiko aitortzeko eta abiarazpen-akta egiteko.

Ebazpen honek ez du esan nahi udal, probintzia edo beste edonon lortu beharreko bestelako baimenak lortu behar ez direnik; izan ere, eskatzaileak nahitaez lortu beharko ditu baimen horiek guztiak. Era berean, baimena hirugarrenen eskubideei kalterik egin gabe ematen da –halakorik balego–, eta jabetza-eskubidea errespetatuta.

Ebazpen honek ez du administrazio-bidea agortzen. Beraz, aurka egiteko, gora jotzeko errekurtsoa aurkez dakioke Industria eta Energiako sailburuordeari, hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi eta biharamunetik aurrera, 4/1999 Legean ezarritakoaren arabera (lege horren bidez azaroaren 26ko 30/1992 Legea aldatu zen, Herri Administrazioen Araubide Juridiko eta Administrazio Prozedura Erkidearena).

Vitoria-Gasteiz, 2013ko urtarrilaren 2a.

Energia eta Meategien zuzendaria,
JAVIER ZARRAONANDIA ZULOAGA.